

3. Unitatea: Herrien eta habitaten aniztasuna

Unitate honetan ikusiko dugunez, Afrika oso kontinente zabala da, askotarikoa, eskualde handiak dituena, bata bestetik bere geografiaren, klimaren, kulturaren, hizkuntzen eta abarren arabera bereizitakoak.

Planetako basoen % 17 dauka, eta basamorturik handiena, Sahara.

Jakingo dugu kontinente horretan 800 komunitate soziokultural baino gehiago bizi direla elkarrekin, eta 1.000 hizkuntza baino gehiago hitz egiten direla.

Ekosistemen eta espezieen aniztasuna dela eta, ia 800 gune babestu ditu, horien kontserbazioa bermatzeko.

Unitate honetan aurkituko ditugun jarduerak:
Erein, jolastu eta txirikordatu.




Herrien eta habitaten aniztasuna

Afrika oso kontinente handia da, Asia eta Amerikaren ondoren handiena. **1.200 milioi pertsona inguru bizi dira bertan**. Afrikak **55 herrialde ditu** guztira. Nigeria, 190 milioi biztanle inguru dituena, Afrikako herrialde populatuena da, eta munduko zazpigarrena.

Afrika, kontinente plurietnikoa

Afrikak aniztasun kultural handia du. Afrikaren historiak 800 talde edo komunitate soziokultural (talde etniko deituak) baino gehiagoko multzo heterogeneoa duen kontinentea nabarmentzen du, historikoki ahaidetasunak eta odolkidetasun-harremanak lotutakoak. Errealitatean, talde horietan **etnizitatea plurala, malgua eta trabagabea izan da beti**. Oinarrizko lotura horiek bere izena eman zion talde bakoitzari: Yoruba, Hausa eta Igbo Nigerian; Zulu, Swahili eta Tsonga Hegoafrikan; Tutsi, Hutu eta Batwa Ruandan; Akan, Manden edo Mandinga; eta Boli Kostan, Gur, besteak beste. Horrela, komunitate bakoitzeko kideek jatorri bera zuten, klan, arbaso edo asaba komun batean oinarritua, eta leinu eta familietan finkatuta.

Ezaugarri askori esker bereiz daitezke talde etniko batzuk eta besteak, baina ohikoenak hizkuntza, historia, leinua (benetakoa edo alegiazkoa: klana), erlijioa eta apaintzeko estiloak dira. **Gaur egun, etnia afrikarrak bantuetan, nilotikoetan edo sudandarretan banatuz sailkatzea baliagarria izan daiteke, baina, egia esan, zenbat eta gehiago aztertu, orduan eta gehiago egiaztatu da zein nahastuta dauden haien antzinarako jatorriak.**



▲ Afrikako mapa politikoa

Wangari Muta Maathai

(Kenya 1940 - 2011) doktoretza (biologian) lortu zuen Ekialdeko eta Erdialdeko Afrikako lehen emakumea izan zen, eta Kenyako lehen emakume irakaslea. Green Belt Movement mugimendua abiarazi zuen nekazarien bizibideak mehatxatzen zituen deforestazioari aurre egiteko.

Mestizaje kultural hori bereziki garrantzitsua izan da Mendebaldeko Afrikako Sahel eskualdean, Saharan, Etiopian eta Ekialdeko Afrikan, oro har, eta Madagaskarren. Fusio hori hizkuntzen banaketan igartzen da gehienbat. Fulani populazioa (Peul edo Fulbe izenez ere ezaguna) Afrikako iparraldetik dator, baina gaur egun Mendebaldeko Afrikan bizi dira, eta, horrenbestez, ez dute hizkuntza afroasiarrik hitz egiten. Madagaskarko biztanle malgaxeak Asiako eta Afrikako hego-ekialdeko jendearen eta herrien nahasketa dira.

Hizkuntzen aberastasuna

Munduan hitz egiten diren hizkuntzen herena Afrikakoa da (1.000 hizkuntza baino gehiago). Gehien erabiltzen direnak **LINGUA FRANCAK** dira, hala nola *swahilia* (Niger-Kongo enborreko bantu hizkuntzak, 100 milioi pertsona inguruk hitz egiten dituztenak), *oromoera* (Kenyako, Etiopiako eta Somaliako hizkuntza afroasiarra: 70 milioi baino gehiago), *hausa* (afroasiarra; Niger, Nigeria, Kamerun, Txad, Boli kostea, Ghana, Benin, Burkina Faso, Togo), *amharikoa* (hizkuntza afroasiarra: semitikoa; Etiopia, Afrikako Adarra; 20 milioitik gora).

Afrikako kontinentearen hizkuntza-egoera konplexua da, bertan ez baitira hizkuntza autoktonoak eta eskualdeetakoak soilik bizi. Aitzitik, potentzia kolonizatzaileek sartutako Europako hizkuntzek (portugesak, frantsesa, ingelesa eta gaztelania, besteak beste) presentzia handia dute kontinenteko herrialde gehienetan.

Ikusten dugunez, **Afrikako egungo hizkuntza-mapa Europako hizkuntzen erabilera inposatu zuen kolonizazio-prozesuaren ondorioa da, eta horrek aldaketa sakonak eragin zituen jatorrizko hainbeste hizkuntza zituen kontinentean.** Hala, jatorrizko hizkuntza batzuk galdu egin ziren, eta beste batzuek hizkuntza kolonoen hitzak bereganatu zituzten.


Afrikako hizkuntzak: afrikar hizkuntza-familia nagusien banaketa


Egile batzuek diotenez, hizkuntza konkistarako tresna boteretsua da, kultura kolonizatzaileen ideiak eta balioak inposatzea ahalbidetzen duelako, eta identitatea eraikitzeko prozesuak hausten dituelako. Afrikaren deskolonizazioan, ofizial gisa aukeratutako europar hizkuntzak zeregin garrantzitsua izango zuen Afrikako herrialdeen identitatearen eraikuntzan.



▼ Afrikako hizkuntza nagusiak

▲ Hizkuntza nigertarkongoarren, nigertar-kongoarren edo Niger-Kongo hizkuntzen mapa






Ghanako Kwame Nkrumah buruzagi politiko eta filosofoak honako hau adierazi du: “Gutariko batzuk musulmanak gara, beste batzuk kristauak, askok jainko tradizionalengan sinesten dute. Gutako batzuek frantsesez hitz egiten dugu, beste batzuek ingelesez, beste batzuek portugesez eta milioika pertsonak Afrikako ehunka hizkuntza askotarikoetatik bakar batean hitz egiten dute. Afrikan, gure begiradari eragiten dioten eta gure garapen politikoa baldintzatzen duten kultura-desberdintasunak geureganatu ditugu”.

▲ **Nilo-saharatar hizkuntzen mapa**

▼ **Adinkra sinboloak**

Adinkra sinboloak: Afrikako kode bisualik ezagunena dira, Asante herriaren herentzia kulturala




Afrikako kontinentearen eskualde klimatikoak

Badirudi “Afrika” hitzaren jatorri etimologikoa haren klimatologiarekin lotuta dagoela. XVI. mendean hasieran, Lehoi Afrikarra Erdi Aroko bidaiari eta jakintsuak (al-Hasan ibn Muhammad al-Wazan) Afrikako iparraldean zehar bidaiatu zuen, ikusi zuen guztia kontatuz, eta iradoki zuen “Afrika” izena *a-phrike* hitz greziarretik eratorria zela, zeinak “hotzik gabe” esan nahi baitu. Etimologia aztertzen duten beste pertsona batzuek diote latinezko *aprica* hitzetik datorrela, zeinak eguzkitsu edo beroa esan nahi baitu. Hala ere, Cheikh Anta Diopek dio Afrikaren izen zaharra *Alkebulan* zela: “gizateriaren ama” edo “Edeneko lorategia”.

Afrika da, planetako kontinente guztien artean, tropikoen arteko eremuan hedatuen dagoena. Horregatik da munduko beroena. 650 milioi hektarea baso dauzka, munduko guztizkoaren % 17. Ia baso handi guztiak eremu ekologiko tropikalean daude: **Afrikak planeta osoko euri-baso tropikal guztien laurdena biltzen du.**

Klima-eremu nagusiak honako hauek dira:

- 1. Klima ekuatoriala duten eremuak.** Urteko batez besteko tenperatura 25 °C-koa dute, eta tenperatura-aldaketa gutxi daude. Euria egiten duenean, urteko 2.500 mm-tik gorakoa izan daiteke. Kongoko sakonunean zehar hedatzen da, ekuatorearen bi aldeetan, Tanganyica lakuraino ekialderantz, Gineako Golkoko kostaldera, Nataleko kostaldera (Hegoafrika) eta Madagaskarko ekialdera arte.
- 2. Klima tropikal hezea duten eremuak.** Urtaro lehorra eta urtaro hezea txandakatzen dira –bigarrenen, 1.500 mm euri baino gutxiago botatzen du urtean, bata bestetik gehiago bereizita eremua ekuatoretik urruntzen den heinean. 450 km-ko zerrenda hartzen du, Kongoko sakonunearen eremu tropikal osoa, Laku Handien eskualde osoa, Mozambikeko kostaldea, Tanzaniako eta Kenyako kostaldea, Dar-Es-Salaametik Mombasaraino, Addis Abeba eskualdea eta Madagaskarko erdigunea inguratuz.



“Ezagutza baobab baten modukoa da: pertsona bakar baten besoak ez dira aski bera biltzeko.”

Afrikako esaera zaharra

▼ **Afrikako geografiaren ezaugarri dira bere ekosistemak eta bere klima**

Afrika da planetako biodibertsitate-erreserbarik handiena, eta hainbat animalia-, landare- eta itsas ekosistema hartzen ditu bere barnean.

3. Klima tropikal lehorra duten eremuak.

Klima sudandarra ere deitzen zaio, eta urtaro lehorraren luzapena du bereizgarri; tropikotik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta luzeagoa da. Ipar-ekialdetik Atlantikorantz jotzen duten haize beroek areagotu egiten dute lehortea. Euria urtean 1.000 mm-tik beherakoa izaten da. Klima tropikal hezeko eremu osoa inguratzen duen zerrenda handia da, Senegal ibaiaren eta Txad lakuaren pare-raino, kontinentearen iparraldean eta kontinentearen erdigunean eta ekialdean, baita Madagaskarko mendebalde osoan ere.



▲ Lurreko klima-eremuen planisferioa

▼ Afrikako kontinentearen klima-mapa




klima beroak



klima epelak



Klima hotzak



- 4. Klima sahararra duten eremuak.** Eremu horietan euri gutxi egiten du (500 mm baino gutxiago urtean) eta urteko epe labur batean (hiru hilabete baino gutxiago); euriteak oso irregularrak dira, gainera, urte batetik bestera. Tenperatura 40 gradu zentigradutik gorakoa izaten da urtaro lehorraren amaieran. Saharako basamortuaren iparraldean eta hegoaldean 300 kilometro inguruko zerrendan dauden lurak hartzen ditu, Itsaso Gorriko kostaldea Sudanen iparraldetik Somaliako hegoaldeko muturreraino, eta Afrika Australeko hego-mendebaldeko erdia Kalahari eta Namibia basamortuak inguratuz.
- 5. Basamortuko klima duten eremuak.** Ia plubiositaterik gabe (100 mm baino gutxiago urtean), Saharako basamortua, munduko handiena, zortzi milioi kilometro karratu baititu, eta Kalahari eta Namibia basamortuak hartzen ditu. Eskualde horietan, egunaren eta gauaren arteko tenperaturen aldea 50 gradukoa izan daiteke.
- 6. Klima mediterranea duten eremuak.** Udak beroak eta lehorrak izaten dira; neguak, aldiz, ez dira oso hotzak eta hezeak izaten, eta urteko batez besteko tenperatura 18 gradukoa izaten da. Kontinentearen iparraldeko eta hegoaldeko muturretako 50 kilometro inguruko zerrenda estuan dauden lurak dira.

Saharatik hegoalderago ingurumenari gehien eragiten dion fenomenoetako bat TAKE edo Tropiko Arteko Konbergentzia Eremua da. Fenomeno meteorologiko horren ondorioz, kontrako norabideetatik datozen aire-fluxuek bat egiten dute. Eremu tropikaletan euria sortzeko mekanismo nagusia da, eta Saharatik hegoalderagoko Afrikan urtaro lehorraren eta hezearen artean alde nabarmena izatea eragiten du. Oso garrantzitsua da nekazaritzako eredu ekonomikoak (ereintza eta uzta) eta artzaintzakoak (transhumantzia edo animalia basatien migrazio mugimenduak) zehazteko. **Afrikak ekosistema eta espezie ugari dauzka, eta kontinentean 741 gune babestu ezarri dira, bi milioi kilometro karratu baino gehiago hartzen dituztenak, beren kontserbazioa bermatzeko.**

Ba al zenekien?

43.or.: Lingua francak: lingua franca edo komunikazio-hizkuntza ama-hizkuntza bera ez duten pertsonen artean elkar ulertzeko tazituki aukeratutako hizkuntza da. Onarpena elkarren arteko adostasunaren edo arazo politiko, ekonomiko eta abarren ondorio izan daiteke.

44.or.: Afrikar hizkuntza-familia nagusien banaketa: Afrikan hizkuntza-aniztasun handia dago. Kalkuluen arabera, 1.700 afrikar hizkuntza autoktono ezagutzen dira. Horiekin batera, jatorriz bertakoak ez diren hizkuntza batzuk ere erabiltzen dira, hala nola Europako kolonizatzaileek eta Indiako azpikontinenteko etorkinek eramandako europar hizkuntzak, eta austronesiar jatorriko hizkuntzak, Madagaskarren. Afrikaren historia eleaniztunean, hizkuntzak beste hizkuntza batzuekin harremanetan egon dira, eta elkarreragin handiko kasuak oso ugariak izan dira.

45.or.: Adinkra sinboloak: Afrikako mendebaldeko zenbait kultura eta zibilizazioen ikur komunak dira, batez ere Ghanako akanen artean (Asante herriaren herentzia kulturala). Sinbolo horiek ehunetan erabili izan dira tradizionalki, etxebizitzetako apaingarri gisa eta egunerokotasunean erabiltzen diren objektuetan.

48. or.: Afrikako kontinenteko eremu klimatikoak: Afrika hirugarren kontinentea da lurraldearen hedadurari dagokionez; kontinentea ekuatorearen bi aldeetan kokatzeak eragiten du, neurri handi batean, haren klima. Kontinentearen egitura dela-eta, bi hemisferioetan eremu berean bere ezaugarri propioak ditu. Afrikako eremu klimatiko guztiak zerrendatuz, arreta berezia jarri behar zaio zehaztasunez ekuatore-eremuari, **kontinente hau baita bereziena, hezeena eta emankorrena nekazaritzari dagokionez.**

Kontzeptuak hurbiltzen

- 1. Klana:** antzinakotasun komun batek lotzen dituelakoan dauden familia batzuen multzoa da klana. Klan bateko kide izateak berekin dakar kideen arteko elkartasuna soziala, non kide bakoitzak taldearen oparotasuna zaintzeko betebeharra baitu.
- 2. Talde etnikoa:** talde etniko bat arbasoek eta historia komun batek batutako komunitatea da. Tradizioak eta erritual partekatuak, erakunde sozial finkatuak eta izaera kultural komunak dituzte bereizgarri eta ezaugarri. Talde etniko bateko kideak jabetzen dira talde horretako kide direla, karga sinboliko bat eta sakontasun historiko bat partekatzen dituzte.
- 3. Heterogeneoa:** mota bat baino gehiagoko zatiz osatua.
- 4. Leinua:** klanak arbaso komunez elkartutako familia zabalez osatutako leinuetan banatzen dira. Leinu bakoitzak agintaritza bat izaten du, eta agintaritza hori heredatua izan daiteke, edo familia jakin bateko kideen artean edo leinua osatzen duten familia guztien artean dituen ezaugarri pertsonalengatik hautatua.
- 5. Mestizajea (mulato terminoarekin kontrajarrita):** mestizo terminoak jatorri etniko desberdineko amaren eta aitaren seme-alabak izendatzen ditu.

Oroitu beharrekoak

*Europako hizkuntzak
konkistatzeko tresna
gisa erabili ziren
kolonizazioan.*

Afrika aniztasun
handiko kontinentea da,
kulturari, hizkuntzei,
klimari, ekosistemei eta
espezieei dagokienez.

Afrikan hizkuntza
autoktonoak eta
eskualdeetakoak potentzia
kolonizatzaileek ezarritako
Europako hizkuntzekin
batera bizi dira.

Zer gogoratu nahi duzu zuk?



Bibliografía eta irudien zerrenda

Christopher Moseley (2010). *Atlas de las Lenguas del mundo en Peligro*. Ediciones UNESCO. Disponible en: <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000189453>

Tony Caballero (03/10/2021) *Ecosistemas del continente Africano*. <https://storymaps.arcgis.com/stories/26254f81d619474a9d71f976cd137878>

Louis Valentin Mballa (12/10/2020). Universidad Autónoma Metropolitana. *Religiosidad y etnicidad en el universo tradicional negroafricano: plataforma de la supervivencia comunitaria*. Revista Política y Cultura, núm. 54. Disponible en: <https://www.redalyc.org/journal/267/26766598008/html/>

- <https://hispanopress.blogspot.com/2015/04/africa-mapas-geograficos-de-africa.html>
- <https://www.celebsagewiki.com/wangari-maathai>
- <https://es.wikipedia.org/wiki/Nigeria>
- https://es.wikipedia.org/wiki/Lenguas_de_%C3%81frica
- <https://delhipages.live/geografia-y-viajes/idiomas/nilo-saharan-languages>
- <https://historiadeafrica.com/los-simbolos-adinkra-de-la-rica-cultura-akan/>
- <https://cienciassocialestic.wordpress.com/coordenadas-geograficas-paralelos-y-meridianos/>
- <https://epicentrogeografico.com/2018/03/el-continente-africano-caracteristicas/>

